

MATERIALISMO HISTERIKOA

Irabazi asmoko lagunak



UXUE APAOLAZA LARREA

Baliteke Google nire lagun onenen artean egotea. Dena kontatzen diot, dena galdetzen diot, eta berak beti dauka erantzunen bat, gomendio sorta bat. Beti hartzen nau koloretsu. Beti dago hor. Eta falta bazait, noraezean sentitzen naiz.

Azken hilabeteetan kontatu diot nora joan naizen “eguraldia Sous-tons”, haurrarekin zer egin dudana eguraldi txarra zegoenetan, zer pelikula ikusi dugun online, nola prestatu ditugun mikrouhin labean egiteko krispetak, mikrouhin gabe, nola kozinatu ditudan hainbat otordu, zer idazlerekin obsesionatu naizen. Beste mota bateko kezken berri ere eman diot: “koloneko minbizia sintomak”, “hilekoaren sintomak minbizia”, “minbizia berrogei urtetik aurrera”. Googlek badaki gaur zertaz idatziko dudana ere, beti daki zertaz idatziko dudana.

Nire noizbehinkako lagunak helbideak dakizki (Maps), noiz bisitatu ditudan, zer klase ematen hasi naizen, eta klase horietan zer material erabiliko dudana (Drive). Eskolako gurasoen kezken berri dauka (Whatsapp), are gehiago ikasturte pandemikoan (Meet).

Eta hara, uda honetan, enpresa horretan lan egiten duen ingeniari bat kaleratu dutela irakurri dugu, adimen artifizial batek bere buruaren kontzientzia hartu duela eta sentimenduak dituela esateagatik. Tira, berri horiek hala-hola iristen zaizkigu, baina lerrobura nahikoa da denok filosofiara lerratu, eta gure bazkaloak aberasteko. Adimen horrek beren buruaren kontzientzia duten izakien txatak eta foroak erabili ditu bere burua aberastu eta trebatzeko; beraz, horixe simulatzeko gai da. Hori besterik ez da, lasai, esan digute. Eta gogoratu dut jendea atzo ikasitako hitzen bidez asaldatzen (ez zait inoiz ahaztuko Gaddafiz aritzeko “satrapa hutsa da!” nola aztoratzen ginen). Edonori sartzen zaio zalantza, nork nor trebatzen duen, simulazio zena berezko noiz bihurtzen den. Gaur simulazio asko dut aurretik, Google Youtuberen bidez eskatuko diodan abestiarekin erlaxatu aurretik.

Eta kezka ez da nire laguna makina bat delako (bizitzaren bihurtze honetan, ez zait hainbeste inporta): gehiago kezkatzen nau nire laguna irabazi-asmoko enpresa bat izateak. Enpresek ez baitute ezer dohainik egiten. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

EGUN ON JOSEBA,
ARBONAKO LUR SAILETAN
ESPEKULAZIOAREN HARRA
SARTZEN ZAIGU URTE OROZ,
NOLA KEN DEZAKEGUN
JAKITEKO DEITZEN
ZAITUT...



Auzitegiak

Espainiako Auzitegiak Txori Barrote konpartsa ikertuko du, presoen argazkiak erakusteagatik. Dignidad y Justicia elkarteak jarritako salaketa tramiterako onartu du Ismael Moreno epaileak, eta konpartsa jarduna ikertzea eskatu dio Espainiako Poliziari, Bilboko Aste Nagusian “terrorismoa goretsi” ote duen ebazteko.

Gorbatxov

Euskara